

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1742

43/2022 EBAZPENA, apirilaren 13koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez erabaki bat argitaratzen baita. Erabaki horrek onartzen du Tecnalía Research & Innovation Fundazioak aurkeztu duen uko egite formala, hain zuzen Vitoria-Gasteizko demarkazioan telebista-zerbitzuak emateko lizentziari uko egitea, lizentzia azkentzearen ondorioetarako.

2022ko apirilaren 5ean eginiko batzarrean, Gobernu Kontseiluak onetsi du Tecnalía Research & Innovation Fundazioak aurkeztu duen uko egite formala, hain zuzen Vitoria-Gasteizko demarkazioan telebista-zerbitzuak emateko lizentziari uko egitea, lizentzia azkentzearen ondorioetarako. Horrenbestez, erabaki horri beharrezko publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia. Erabaki horrek onartzen du Tecnalía Research & Innovation Fundazioak aurkeztu duen uko egite formala, hain zuzen Vitoria-Gasteizko demarkazioan telebista-zerbitzuak emateko lizentziari uko egitea, lizentzia azkentzearen ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 13a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2022ko apirilaren 22a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 13KO 43/2022 EBAZPENARENA.

ERABAKIA, GOBERNU KONTSEILUARENA, TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOAK AURKEZTU DUEN UKO EGITE FORMALA ONARTZEN DUENA, HAIN ZUZEN VITORIA-GASTEIZKO DEMARKAZIOAN TELEBISTA-ZERBITZUAK EMATEKO LIZENTZIARI UKO EGITEA, LIZENTZIA AZKENTZEAREN ONDORIOETARAKO.

439/2004 Errege Dekretuak, martxoaren 12koak, tokiko telebista digitalaren Plan Tekniko Nazionala onartzen zuenak eta hori aldatu zuen abenduaren 3ko 2268/2004 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkideagoan 15 demarkazio planifikatu zituen. Lurreko uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzua arautzen zuen urriaren 3ko 190/2006 Dekretuaren 12.3 artikulua araberak, Gobernu Kontseiluak, 2006ko azaroaren 28ko bileran, lurreko uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzuen emakidak egilesteko lehiaketa arautu zuten administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agiriak onartu zituen. Azkenik, Kultura sailburuaren 2006ko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, dagokion lehiaketa publikoaren deialdia egin zen.

Gobernu Kontseiluak, 2007ko uztailaren 17an, erabaki zuen, besteak beste, telebista-zerbitzuak emateko emakida esleitzea EUVE – European Virtual Engineering Fundazioari. 2009ko azaroaren 6an esleipena formalizatzeko administrazio-kontratuaren dokumentua sinatu zen. Geroago, emakidaren titularra zen fundazioa Tecnia Research & Innovation Fundazioak xurgatu zuen.

Gauzak horrela, 2022ko martxoaren 16an, Tecnia Research & Innovation Fundazioak modu formalean telebista-zerbitzuen lizentziari uko egitea aurkeztu du.

Ondorioz, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko 7/2010 Lege Orokorraren 30.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako, hau da, titularrak uko egiteagatik emandako lizentziak azkentzearen ondorioetarako, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, aztertu ostean, hau

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Onartzea Tecnia Research & Innovation Fundazioak Vitoria-Gasteizko demarkazioetan telebista-zerbitzuak emateko lizentziari aurkeztutako uko egite formala.

Bigarrena.– Tecnia Research & Innovation Fundazioari emandako erreferentziarako telebista-zerbitzuen lizentzia azkendutzat jotzea, titularrak formalki uko egin diolako.

Hirugarrena.– Tecnia Research & Innovation Fundazioari jakinaraztea uko egitea eta lizentzia azkentzea onartzen duen erabaki hau, eta Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatuko Idazkaritzari jakinaraztea jabari publiko erradioelektrikoa erabiltzeko gaitzen duen titulua azkendu dela, dagozkion ondorioetarako.

Laugarrena.– Agindua ematea Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dezala.